141 ABENDUA 2017 DICIEMBRE

Atarrabiarako udal informazio aldizkaria
Boletín de información municipal de Villava

www.villava.es

# Villava Atarrabia


Osoko bilkurak [2]
Atarrabia Iraunkorra [3]
Isunak txakur gorozkiak ez biltzeagatik [4]
Eskola-laguntza urtarrilaz geroztik [5]
Jubiloteka: ateak zabalik ezagutu dezazun [7]
Jarduera zuzendua Martiketeko muskulazio gelan [9]
Euskara, opari [10]
Txuma Flamariqueren kontzertua otsailaren 4an [10]
Ateraldiak elurretara [12]
Enplegua eta Prestakuntza Programa 2018 [15]
Amalur haur eskola, berdintasunean oinarrituriko Skolae programan [14]
Agenda [15]

Plenos municipales [2]
Atarrabia Iraunkorra [3]
Multas por no recoger los excrementos de los perros [4]
Apoyo escolar desde enero [5]
La Jubiloteka abre sus puertas y te invita a conocerla [7]
Actividad dirigida en la sala de musculación de Martiket [9]
El euskera, un regalo [10]
Concierto de Txuma Falmarique el 4 de febrero [10]
Salidas a la nieve [12]
Programa Empleo y Formación 2018 [15]
La escuela infantil Amalur, en el proyecto Skolae de educación en igualdad [14]
Agenda [15]







San Andres Eguna

**Argitaratzailea:** Atarrabiako Udala. **Erredakzio Kontseilua:** Mikel Oteiza, Consuelo Satrústegui, Sandra Rodríguez, Rubén Oneca, Laura Curiel eta Laia Prat. **Argazkia:** Iñaki Porto, Antonio Olza. **Itzulpena:** Kike Diez de Ulzurrun. **Errealizatzailea:** Heda Comunicacion. **Inprimatzailea:** Gráficas Alzate. **Ale kopurua:** 4.400. **LG:** NA 1223-1996. **Doako banaketa** // **Edita:** Ayuntamiento de Villava. **Consejo de Redacción:** Mikel Oteiza, Consuelo Satrústegui, Sandra Rodríguez, Rubén Oneca, Laura Curiel y Laia Prat. **Fotografía:** Iñaki Porto, Antonio Olza. **Traducción a euskera:** Kike Diez de Ulzurrun. **Realiza:** Heda Comunicación. **Imprime:** Gráficas Alzate. **Tirada:** 4.400 ejemplares. **D.L.:** NA 1223-1996. **Difusión gratuita**

## Osoko bilkura arrunta

### 2017ko urriaren 31

**Animaliak edukitzeko ordenantza hasiera batez onetsia.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Sandra Rodríguez (UPN) izan ezik. Udalbatzak animaliak edukitzeko ordenantza onetsi zuen hasiera batez.

**2013ko uholdeen ondoko zerga-salbuespenak aitortzeko akordio proposamena eta emaniko dirua itzultzeko eskaera.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen 2013ko uholdeen ondoko zerga-salbuespenak aitortzeko akordio proposamena, bai eta emaniko dirua itzultzeko eskaera ere.

**Akordio proposamena aktei buruz eta akten bideoari buruz.** Udalbatzak aho batez onetsi zuen aktei eta akten bideoari buruzko akordio proposamena, akta bat egin dadin osoko bilkura, informazio batzorde eta bozemaile batzorde bakoitzaz, eta osoko bilkura bideoz hartzeko, bai eta, bere kasuan eta ahal den neurrian, informazio batzordeak eta bozemaile batzordeak ere. Gero, irudiak eta soinua editatu eta udal webean jarriko dira ikusgai.

**Azaroak 25, adierazpen instituzionala egiteko proposamena, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako batzordeak proposatua.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen Azaroaren 25ari buruzko proposamena, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako batzordeak proposatua. Udalak, beraz, bere arbuioa erakutsi du indarkeria sexista mota ororen aurka, emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen duten bazterkeria ugarien ondorio dena. Administrazio publikoa den aldetik, Udalak bere konpromisoa berretsi du desberdinkeria guztien aurka lanean segitzeko, desberdinkeriek emakume eta neskatoen aurkako zaurgarritasun eta indarkeriak eragiten baitituzte. Udalak, halaber, eskatu du bete dadila EBean asiloa eskatzen duten emakume errefuxiatuen egoerari buruzko ebazpena, joan den martxoaren 8an bozkatua; eta elkartasuna adierazi die emakume erasotuei edo erraildakoei, bai eta indarkeria sexistari aurre egiten dioten emakume eta neskatoei ere. Udalak, azkenik, herritar guztiak gonbidatu ditu emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazteko konpromisoa berrestera, eta Azaroaren 25aren inguruko ekitaldi guztietan parte hartzera.

**Alkatetza-ebazpena berretsi da 276/2017 prozedura arruntean agertzeko.** Udalbatzak aho batez berretsi du alkatetza-ebazpena, Udala administrazioarekiko auzi-errekurtsoan ager dadin (276/2017 prozedura arrunta). Administrazioarekiko 2. auzi-epaitegiko F atala arduratu da aferaz. Udalak, beraz, bere ordezkariak izendatu ditu Instalaciones Deportivas Masquatro S.L. enpresak jarritako auzian; hots, Antonio Madurga Gil abokatua, eta Ángel Echauri Ozcoidi prokuradorea, biak ere Iruñeko Abokatu eta Prokuradore Elkargokoak, hurrenez hurren.

**Atarrabia-Geroa Bairen mozioa Gdeim Izikeko gertakariei lotutako epaiketaz eta kondenaz (Mendebaldeko Sahara).** Udalbatzak mozioa puntuz puntu bozkatu zuen. Honatx lehen puntua: Gdeim Izikeko gertakariei loturiko epaiketaren irregulartasunak eta bermerik eza salatzea; kondenatutako preso politikoak askatzea; epaitutako gertakariak berriz ere ikertzea, epaiketa zuzen eta gardena bermatzen duten oinarrizko printzipioekin bat, eta Mendebaldeko Saharako preso politiko guztiak berehalakoan askatzea. Bada, lehen puntua onetsi zen, 14 boto izan baitziren alde, eta 2 abstentzio (UPN). Bigarrena, hauxe: Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideen aurka egin daitekeen urraketa oro salatzen segitzeko eskaera helaraztea Nafarroako Gobernuari, Espainiako Gobernuari, Europako erakundeei eta nazioarteko komunitateari; aho batez onetsi zen. Hirugarren puntuak gogora zekarren saharar herriak autordeterminaziorako eskubide besterenezina duela erreferendum baten bidez; onetsi zen, 14 boto izan baitziren alde, eta 2 abstentzio (UPN).

**Kataluniari buruzko adierazpen proposamena.** Kataluniako gertaerei buruzko adierazpen proposamena puntuz puntu bozkatu zen, EH BILDU, Atarrabia-Geroa Bai eta Izquierda-Ezkerra taldeek aurkeztua. Lehena onetsi zen, 11 boto izan baitziren alde, 3 kontra (UPN eta PSN), eta 2 abstentzio (Izquierda-Ezkerra). Honatx: onartezina da Espainiako Gobernuak, Monarkiak babesturik, eta PSOE, Ciudadanos eta UPN taldeek lagundurik, 155. artikulua Katalunian ezarri izana, herritarren eskubide politikoak bertan behera utzi baitira (autogobernua, adibidez), eta horren ondorioz, biktima nagusiak herritar katalanak dira. Bigarrena hauxe zen: elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa bide baliogarriak dira arazo politikoak konpontzeko; onartu zen, 14 boto izan baitziren alde, eta 2 aurka (UPN).

**Premiazko mozioa Abiadura Handiko Trenaz.** Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako mozioa onetsi zen, 10 boto izan baitziren alde (EH BILDU eta Izquierda-Ezkerra); 5 aurka (UPN eta Atarrabia-Geroa Bai), eta abstentzio 1 (PSN). Honatx: AHTa makroegitura zentzugabea da eta ez da beharrezkoa errentagarritasun sozialaren aldetik; diru xahuketa izugarria eraginen du, eragin ikaragarria ingurumenean, eta ez dator bat Nafarroak dituen beharrekin (Tafalla eta Tutera kanpo uzten ditu). Halaber, errefusatu da Nafarroako Gobernuak AHT aurrera ateratzeko darabilen engaiamendua; lurraldea kohesionatuko duen trenaren aldeko apustua behar da, nafarren zerbitzuan egonen dena; gizartean eztabaida piztea eskatu da, Nafarroak zer-nolako trena behar duen zehazteko, eta herritarrei alternatiben artean eztabaidatu eta erabakitzeko aukera emateko. Udalak, azkenik, bere konpromisoa agertu du AHT geldiarazteko eta gizarte eztabaida hori bultzatzeko.

## Pleno ordinario

### 31 de octubre de 2017

**Aprobación inicial de ordenanza de tenencia de animales.** En una sesión plenaria a la que asistieron todos los concejales excepto Sandra Rodríguez (UPN), la Corporación municipal aprobó inicialmente por unanimidad la ordenanza de tenencia de animales.

**Propuesta de acuerdo de reconocimiento de exenciones tributarias y petición de devolución de cantidades concedidas tras las inundaciones de 2013.** El Pleno aprobó por unanimidad la propuesta de acuerdo de reconocimiento de exenciones tributarias y petición de devolución de cantidades concedidas tras las inundaciones de 2013.

**Propuesta de acuerdo sobre actas y vídeo de actas.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad la propuesta de acuerdo sobre actas y vídeo de actas para que de cada pleno, comisión informativa y junta de portavoces se levante un acta y se complemente con un vídeo de la sesión plenaria, y en su caso y en la medida de lo posible, de las comisiones informativas y juntas de portavoces. Posteriormente, las imágenes y audio serán editados y se colgarán en la web municipal.

**Propuesta de declaración institucional ante el 25 de noviembre remitida por la comisión de igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres.** El Pleno aprobó por unanimidad la propuesta de declaración institucional ante el 25 de noviembre remitida por la Comisión de Igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres para mostrar su repulsa ante todo tipo de violencia sexista producto de las múltiples discriminaciones que sufren las mujeres en cualquier ámbito y contexto; para manifestar su compromiso como administraciones públicas para seguir trabajando activamente contra todas las desigualdades que generan situaciones de vulnerabilidad y violencias contra las mujeres y las niñas; para mostrar su exigencia de que se cumpla la Resolución sobre la situación de las mujeres refugiadas solicitantes de asilo en la UE votada el pasado 8 de marzo; para mostrar su solidaridad con las mujeres agredidas o asesinadas, con las mujeres y niñas que enfrentan la violencia sexista; y para invitar a toda la ciudadanía a seguir mostrando su rechazo y compromiso con la erradicación de la violencia contra las mujeres y a participar en todas




Calle Mayor, 15 - Villava-Atarrabia

ITZIAR
cafetería restaurante
Tel. 948 14 10 17
Fermín Tirapu, 3
Villava-Atarrabia

Cafetería - Bar Paradise

- Pintxos
- Bocadillos
- Platos combinados...

¡Feliz Navidad! Zorionak!

C/ Mayor, 37 bajo - Villava - Tel. 648 213 189

las actividades que se organicen en torno al 25 de noviembre.

**Ratificación resolución de alcaldía personación en el P.O. 276/2017.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad la ratificación de la resolución de alcaldía para que el Ayuntamiento se persone en el recurso contencioso administrativo Procedimiento Ordinario 276/2017 que se sigue en el Juzgado de lo contencioso administrativo nº2 sección F para designar a los abogados a los letrados del M.I. Colegio de Pamplona D. Antonio Madurga Gil y como procurador al del M.I. Colegio de Pamplona D. Ángel Echauri Ozcoidi para que representen al Ayuntamiento en el recurso contencioso administrativo interpuesto por Instalaciones Deportivas Masquatro S.L.

**Moción de atarrabia-geroa bai sobre juicio y condena en relación a los sucesos de GDEIM IZIK (Sáhara Occidental).** El Pleno sometió a votación la moción punto por punto. El primer punto, por el que se denunciaban las irregularidades y falta de garantías en el juicio en relación con los sucesos de GDEIM IZIK, se solicitaba la puesta en libertad de los presos políticos condenados, se pedía una nueva investigación sobre los hechos encausados con arreglo a las normas que garanticen el cumplimiento de los principios esenciales que avalan un juicio justo y transparente, y se exigía la liberación inmediata de todos los presos políticos del Sáhara Occidental, fue aprobado por 14 votos a favor y 2 abstenciones de UPN. El segundo punto, por el que se solicitaba al Gobierno de Navarra, al Gobierno de España, instituciones europeas y comunidad internacional que sigan denunciando cualquier violación de los derechos humanos que pudieran producirse en los Territorios Ocupados del Sáhara Occidental fue aprobado por unanimidad. El tercer punto, por el que se recordaba el derecho inalienable del pueblo saharaui a la libre determinación, mediante un referéndum, fue aprobado por 14 votos a favor y 2 abstenciones de UPN.

**Propuesta de declaración sobre Cataluña.** La votación sobre la propuesta de declaración sobre los hechos ocurridos en Cataluña por parte de EH BILDU, Atarrabia-Geroa Bai e Izquierda-Ezkerra se realizó por puntos. El primer punto, por el que se calificaba de decisión inadmisible e inaceptable la puesta en marcha del artículo 155 en Cataluña por parte del Gobierno español, apoyado por la Monarquía, y acompañado por el PSOE, Ciudadanos y UPN, ya que suspende derechos políticos ciudadanos como el autogobierno y da lugar a un escenario en el que la ciudadanía catalana en su conjunto es la principal víctima, fue aprobado por 11 votos a favor, 3 en contra de UPN y PSN y 2 abstenciones de Izquierda-Ezkerra. El segundo punto, por el que se decía que el diálogo, la negociación y el acuerdo son las vías válidas para solucionar los problemas políticos, fue aprobado por 14 votos a favor y 2 en contra de UPN.

**Moción de urgencia sobre el Tren de Alta Velocidad.** La moción de oposición al Tren de Alta Velocidad (TAV) para declarar que el TAV es una macroinfraestructura sin sentido e innecesaria desde el punto de vista de la rentabilidad social, con un enorme despilfarro económico e impacto medioambiental, que no responde a las necesidades de Navarra (deja fuera a Tafalla y a Tudela); para rechazar que el Gobierno de Navarra se implique para sacar adelante el TAV; para apostar por un tren que cohesione el territorio y esté al servicio de los navarros; para demandar la apertura de un debate social para definir el tren que necesita Navarra y que se dé a la ciudadanía la oportunidad de debatir y decidir entre las diferentes alternativas; y parar manifestar su compromiso para parar el proyecto del TAV e impulsar ese debate social, fue aprobado por 10 votos a favor de EH BILDU e Izquierda-Ezkerra, 5 en contra de UPN y Atarrabia-Geroa Bai y 1 abstención de PSN.



# Atarrabia Iraunkorra

CAN Fundazioak, Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateak lagundurik, Ultzama ibaia garbitzeko zazpigarren auzolana egin zen joan den urriaren 22an, euripean, artean ere garbitu gabe zegoen tartean, hau da, Trinitatetik San Andres errotara bitartera. Garbiketa lanak ibai-bazterretatik eta uretatik bertatik egin ziren, txalupak ere erabili baitziren. Horrez gain, ibilaldi-hitzaldi bat egin zen inguru horretako landarediaz eta animaliez. Bukatzeko, Udaletxe plazan, otamena zerbitzatu eta puzgarriak paratu ziren. Eguneko protagonistak martin arrantzaleak, bisoi europarrak, haltzak, bildutako hondakinak (bizikletak, edalontziak, golosina plastikoak…) eta 90etik gora partehartzaileak izan ziren.

**Bestelako ekimenak**

Atarrabia Iraunkorrak bere ekarpena egin die 2018ko **Inauteei**, flora eta faunari buruzko edukiak prestatu baititu herriko ikastetxeetan landuko diren unitate didaktiko batzuetarako.

Gaur egun, Atarrabia Iraunkorra ekintza-plan bat ari da prestatzen berdeguneetan jarduteko.

Azaroan, hainbat zuhaitz kendu ziren Ultzama ibai-bazterretik, erortzeko arriskuan baitzeuden.

Abenduan, txakurrendako eremuak berrituko dira, eta era berean, “Zaindu dezagun gure herria-txakurrak eta gu elkarrekin bizi gara” prozesuaren bigarren zatia gauzatuko da.



# Atarrabia Sostenible

Con el apoyo de Fundación CAN, Gobierno de Navarra y MCP, Atarrabia Sostenible celebró el domingo 22 de octubre en una jornada lluviosa un Auzolan de limpieza, el séptimo ya, del río Ultzama, en el tramo que quedaba por abordar, el que va desde la Trinidad hasta el Molino de San Andrés. Desde tierra y desde el agua (barcas) se realizaron labores de limpieza y un paseo-charla sobre flora y fauna. La jornada culminó con un lunch e hinchables en la plaza del Ayuntamiento. Los protagonistas del día fueron martines pescadores, visones europeos, alisos, los residuos recogidos (bicicleta, vasos, plásticos de golosinas...) y las más de 90 personas participantes.

**Otras iniciativas**

Atarrabia Sostenible ha hecho su aportación a los **carnavales** de 2018 facilitando contenido sobre flora y fauna para unas unidades didácticas que se trabajarán en los centros educativos.

En la actualidad, Atarrabia Sostenible trabaja en un Plan de Acción en Zonas Verdes.

En noviembre, se retiró arbolado en la ribera del Ultzama con riesgo de caída. En diciembre está prevista la reforma de zonas de esparcimiento canino y la II Parte del proceso “Cuidemos nuestro pueblo-Conviviendo con perros”. ■



## ■ Bandaren lehen kontzertua abenduaren 27an

Kultur Etxeko antzokian izanen da, 19:00etan. Hainbat talde izanen ditu bidelagun, hala nola San Andrés Abesbatza, Atarrabia Abesbatza eta Zorongo, eta era berean, Amy Winehouseren remix bat abestuko duen neska gazte kantari bat eta neska akordeoilari bat. Sarrera 4 € balio du.
Zatoz bandan parte hartzera! (**948 35 59 70 /atarrabiako-musikabanda@gmail.com**).

## La banda se presenta en concierto el 27 de diciembre

Será en el teatro de la casa de Cultura a las 19:00. Le acompañarán la Coral San Andrés, Atarrabia Abesbatza, Zorongo, una joven que cantará un remix de Amy Winehouse y otra que tocará el acordeón. La entrada cuesta 4 €.
¡Anímate a formar parte de la banda! (948 35 59 70 /atarrabiakomusikabanda@gmail.com). ■

## ■ Desgaitasuna duten pertsonendako aparkatze-txartelen kontrola

Udaltzaingoak kontrolatu eginen ditu desgaitasuna duten pertsonendako aparkatze-txartelak, baimen hori dutenek ongi erabiltzen ote duten ikusteko. Inolako irregulartasunik badago, txartela kendu, eta indarreko legeriaren araberako zigorra ezarriko dute.
Udaltzaingoak gogorarazi du pertsona baimendunek bakarrik erabil dezaketela txartela, eta ibilgailuan dabilenean, gidari izan ala ez. Erabat debekatua dago baimenik gabeko jendeak txartela erabiltzea, txartelaren jabea auto barnean ez dagoenean.

## Control de las tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad

La Policía municipal va a controlar las tarjetas de estacionamiento destinadas a personas con discapacidad para comprobar si aquellas personas que cuentan con la autorización correspondiente hacen un buen uso de ella. En caso de que los agentes observen alguna irregularidad, se procederá a su retirada preventiva y se sancionará al titular en base a la legislación vigente.
Desde la Policía municipal quieren recordar que sólo pueden hacer uso de la tarjeta las personas que tiene adjudicada la autorización cuando circulen como conductor o pasajero del vehículo. Está totalmente prohibido el uso de esta tarjeta por personas ajenas a la autorización cuando el titular de la tarjeta no se encuentre en el interior del coche. ■

# Isunak, txakurren gorozkiak ez biltzeagatik

Udalak hasiera batez onetsi du animaliak eduki eta babesteari buruzko ordenantza, jendearen osasuna eta segurtasuna babeste aldera, eta era berean, animaliak babeste aldera.
Araudian etxeko animaliak, konpainiakoak eta zakur gidariak arautu dira, eta animalia arriskutsuetan bi mota jaso dira: arraza edo espezie jakin batekoak izateagatik heriotza edo kalteak eragin ditzaketenak, eta arraza jakin batekoak izanik, beren joera erasokorragatik, tamainagatik edo masailezurren indarragatik, heriotza emateko eta ondasunei kalte egiteko gai direnak.
Arauketa berrian arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak ezarri dira: arinek 90etik 300 eurora bitarteko isunak izanen dituzte; larriek, 301etik 1.500 eurora bitarte; eta oso larriek, 1.501etik 3.000ra. Bereziki animalia arriskutsuei dagokienez, isunak 2.400 eurora bitartekoak izan daitezke, eta oso larriak, 15.000 eurora artekoak.

**Debekatua dago katuei eta usoei kaleetan jaten ematea**

Arau hori urratzea arau-hauste arina izanen da, eta halaber, animaliak eremu publikoan lotuta eta bakarrik uztea; patio eta balkoietan uztea eta auzokideei enbarazu eragitea; konpainiako animalia bat erroldatu gabe edukitzea; eremu publikoa zikintzea eta animalia horien pixa ez garbitzea "iragazkorrak ez diren eremuetan"; animaliak ikastetxe, igerileku, osasun etxe eta eraikin publikoetan sartzea; edota lokarriarekin edo katearekin lotua ez eramatea eremu publikoetan.
Arau-hauste larriak dira, besteak beste, txakurren eta katuen gorozkiak bildu gabe uztea eremu publikoetan; osasun dokumentaziorik ez izatea; animaliak instalazio desegokietan mantentzea, behar den janaria ez ematea, edo baldintza higieniko txarretan edukitzea, edota auzokideei edo beste pertsona batzuei enbarazu egiten dieten baldintzetan mantentzea, muturrekorik ez erabiltzea edota erantzukizun zibileko asegururik ez izatea.
Arau-hauste oso larriak dira lagun egiteko animaliatzat hartzen ez diren etxeko animaliak eta animalia basatiak izatea, baimen espresurik gabe, baita arriskutsuak edo pozoitsuak izan daitezkeenak; konpainiako animalia batek pertsonei eragindako lesioak eta erasoak; uztea, esku hartuz edo esku ez hartzeagatik, arriskutsua izan daitekeen animaliak eraso egin diezaien pertsonei edo bertze animalia batzuei, edota kalte edozein ondasuni, eta horrelako animaliak eramatea gutxienez bi metroko lokarriarekin lotu gabe.

# Multas por no recoger los excrementos de los perros

El Ayuntamiento ha aprobado inicialmente la ordenanza de tenencia y protección de animales con el objetivo de garantizar la salud y seguridad de las personas, por un lado, y proteger los animales, por el otro. La normativa incluye la regulación de animales domésticos, de compañía y perros guía, y recoge dos tipos de animales peligrosos: los que por pertenecer a una especie o raza pueden causar muerte o daños, y los que dentro de una tipología racial, por su carácter agresivo, tamaño o potencia de mandíbula, tengan capacidad de causar muerte o daños.
La nueva regulación establece distintos tipos de infracciones: leves, que llevan aparejadas multas de 90 a 300 euros; graves, con sanciones de 301 a 1.500 euros; y muy graves, con multas de 1.501 a 3.000 euros. En el caso de los animales especialmente peligrosos, las sanciones graves pueden llegar hasta los 2.400 euros, y las muy graves hasta los 15.000.

**Prohibido alimentar a gatos y palomas en la vía pública**

Este incumplimiento será una infracción leve, al igual que dejar atados a los animales solos en la vía pública; mantenerlos en patios o balcones causando molestias a los vecinos; poseer un animal de compañía no censado; ensuciar y no limpiar las micciones realizadas por estos animales en "zonas no permeables"; entrar con animales en centros educativos, piscinas o centros de salud y edificios públicos; o no llevarlos con correa o cadena en espacios públicos.
Se consideran infracciones graves, entre otras, no recoger los excrementos de los perros y/o gatos en las vías públicas; no disponer de la documentación sanitaria; mantener a los animales en instalaciones inadecuadas y sin la alimentación necesaria, o en condiciones higiénicas no adecuadas o que supongan molestias para los vecinos u otras personas, no usar el bozal o no tener el seguro de responsabilidad civil.
De carácter muy grave son tener animales domésticos no calificados de compañía y animales salvajes sin autorización expresa, también los potencialmente peligrosos o venenosos; no vacunar; maltratar y abandonar a los animales; las lesiones o agresiones a personas producidas por un animal de compañía; permitir por acción u omisión que el animal potencialmente peligroso pueda agredir a personas, animales o bienes, y portar este tipo de animales sin correa de menos de dos metros. ■

## ■ Abenduaren 21a, azken eguna JEZ zerga ordaintzeko

JEZ jarduera ekonomikoen gaineko zerga da, eta aurtengoa ordaintzeko azken eguna abenduaren 21a izanen da. Helbide ez-helbideratuak Udaletxeko herritarrak hartzeko bulegoan ordainduko dira (karrika Nagusia, 22); edo bestela, Nafarroako Rural Kutxako edozein bulegotan, 8:15etik 10:30era, edo banku horretako kutxazainetan; edo 012 telefonoaren bidez; edo www.villava.es udal webaren bidez.

## El 21 de diciembre finaliza el plazo para el pago del I.A.E.

El plazo para el pago del recibo correspondiente al año 2017 del Impuesto de Actividades Económicas (I.A.E.) finalizará el día 21 de diciembre. En el caso de los recibos no domiciliados, el pago podrá realizarse en la oficina de atención ciudadana del Ayuntamiento (calle Mayor, 22); en cualquier oficina de Caja Rural de Navarra, en horario de 8:15 a 10:30, o en su red de cajeros automáticos en cualquier horario; a través del teléfono 012; o a través de la web municipal www.villava.es. ■

## Udalaren diru-laguntza jasotako GKEek beren proiektuak azaldu dituzte

Bakerako Lankidetza Batzarrak GKEk “Emakumea Hegoaldean” izeneko proiektua aurkeztu du azaroaren 6tik 12ra Kultur Etxean jarritako erakusketa batean. Atarrabiako Udalak diruz lagundutako egitasmoa da, 2016ko deialdian. Pedro de Atarrabia institutuko DBHko 2. mailako ikasleak (gaztelaniazkoak nahiz euskarazkoak) erakusketa ikusten izan dira gaiari buruzko unitate didaktiko bat lantzeko, eta edukia ere egungo testuingurura zabaldu dute.
Enrique de Ossó Fundazioak (FUNDEO), halaber, diru-laguntza jaso du 2016ko deialdian, eta hitzaldia egin du azaroaren 21ean Kultur Etxean, Uruguain garatu duten "Entrecosturas" proiektua azaltzeko.

## Las ONG con subvención municipal explican sus proyectos

La ONG Asamblea de Cooperación por la Paz presentó del 6 al 12 de noviembre en una exposición instalada en la Casa de Cultura el Proyecto "Mujer en el Sur", subvencionado por el Ayuntamiento de Villava en la convocatoria del 2016. El alumnado del Instituto Pedro de Atarrabia de 2º de ESO, tanto de la línea de Euskera como de la de Castellano, acudió a lo largo de la semana a la exposición para trabajar una unidad didáctica sobre el tema, ampliando el contenido también a nuestro contexto actual.
La Fundación Enrique de Ossó (FUNdEO), también subvencionada en la convocatoria de 2016, ofreció el pasado 21 de noviembre una charla en la casa de Cultura en la que explicó su proyecto de Cooperación desarrollado en Uruguay, denominado "Entrecosturas". ■



## Nola lagundu etxetik gure seme-alabek arrakasta izan dezaten

Atarrabiako Haurrak babesteko Sarearen baitan, saio bat egin zen joan den azaroaren 7an, Pedro de Atarrabia institutuan, DBHko. 1. mailako gurasoekin, “Gure seme-alaben arrakasta eraikitzen” izenburupean. Topaketan, 20 emakumek eta 7 gizonek parte hartu zuten, eta guztiei ere gida bat eman zitzaien, Nafarroako Gobernuak argitaratua, “Nola lagundu seme-alabei drogen aurka” izenburukoa. Gidaren edukia landu eta oinarrizko hezkuntza-jarraibideak eman ziren hori guztia etxean praktikan jartzeko.
Saioa institutuko orientatzaileak zuzendu zuen, eta Atarrabiako eta Uharte-Esteribarko Osasun Etxeko nahiz gizarte zerbitzuetako hainbat langilek esku hartu zuten. Jarduera bera La Presentación ikastetxean eginen da aurki.

## Cómo ayudar desde casa al éxito de nuestros hijos e hijas

En el marco de la Red de protección Infantil de Villava/Atarrabia, el pasado 7 de noviembre se celebró en el Instituto Pedro de Atarrabia una sesión con progenitores de 1º ESO titulada “Construyendo el éxito de nuestros hijos e hijas”. Participaron en el encuentro 20 mujeres y 7 hombres, a quienes se entregó una guía editada por el Gobierno de Navarra titulada “Ayudar a hijos e hijas frente a las drogas”. Se abordó su contenido y se facilitaron unas pautas educativas básicas para poner en práctica en casa.
Dirigió la sesión la orientadora del Instituto e intervinieron personal del Centro de Salud y de los servicios sociales de Villava y de Huarte-Esteribar. Esta misma actividad se realizará próximamente en La Presentación. ■

## Drogak langai DBHko 3. mailako ikasleekin

Aurreko ikasturteetan bezala, Pedro de Atarrabia institutuak drogen inguruko programa bat jarri du abian, Atarrabiako eta Uharte-Esteribarko oinarrizko gizarte zerbitzuekin batera, DBHko 3. mailako irakasle eta ikasleentzat. Urrian, tutoreendako saio bat egin zen, eta ikasleek, beren aldetik, test bat bete zuten drogekin duten loturari buruz. Azaroan, ikasleak eta arlo horretako teknikariak bildu ziren, saio bat egin zen gurasoentzat, eta beste bat, tutoreentzat. Abendutik martxora, tutoreen eta ikasleen arteko bilerak eginen dira, eta apirilean, azkenik, testaren emaitzak aztertu, eta hirugarren eta azken saioa eginen da tutoreekin, programaren ebaluazioa egiteko.

## Trabajos sobre drogas con alumnado de 3º de ESO

Como en cursos anteriores, el Instituto Pedro de Atarrabia, en colaboración con los servicios sociales de base de Villava/Atarrabia y Huarte-Esteribar, ha puesto en marcha un programa en torno a las drogas dirigida al profesorado y alumnado de 3º de ESO. En octubre se celebró una sesión con tutores/as y el alumnado completó un test relativo a su relación con las drogas. En noviembre hubo un encuentro del alumnado con técnicos en la materia, una sesión con progenitores y una segunda con tutores/as. Entre diciembre y marzo se organizarán encuentros entre tutores/as con alumnado, y en abril, finalmente, se abordarán en una sesión los resultados del test y tendrá lugar la tercera y última sesión con tutores/as para proceder a la evaluación del programa. ■

## Eskola-laguntza urtarrilaz geroztik

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gaztelekuk eskola-laguntzarako zerbitzu bat abiaraziko dute heldu den urtarrilean, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat. Laguntzaileak boluntarioak dira. Jarduera Gaztelekun eginen da, eta ordutegi kontuengatik edo beste arrazoi batzuengatik seme-alaben eskola-lanen jarraipena egiterik ez duten gurasoei laguntzea du helburu. Kontua da nota txarrak ez ateratzea, baina era berean, ikasteko ohitura onak hartzen joatea. Jarduera beti egiten da ikasleen ikastetxearekin harreman estuan.
Gurasoek bermatu behar dute seme-alabak jarduerara joanen direla, puntualtasunez iritsiko direla, eta eskola-agenda eramanen dutela, bai eta lana egiteko behar den eskola-material guztia ere.
Taldeak (gaztelaniazkoak nahiz euskarazkoak) bi arratsaldez biltzen dira astean, 50 minutuko saioetan. 20 euro balio du hiruhileko bakoitzeko.
Ikasleei laguntzeko jarduera honetan boluntario aritzeko, Oinarrizko Gizarte Zerbitzura edota Gaztelekura joan beharra dago.

## Apoyo escolar desde enero

El SSB y Gazteleku ponen en marcha en enero el servicio de apoyo escolar a cargo de personas voluntarias para alumnado de 1º y 2º de ESO. La actividad se desarrolla en el Gazteleku y tiene como objetivo ayudar a las familias que no pueden hacer un seguimiento de las tareas escolares de sus hijos/as por cuestión de horario o por otros motivos. Se trata de evitar que bajen sus calificaciones, pero también de garantizar que se van haciendo con buenos hábitos de trabajo. Esta actividad se realiza siempre en estrecha colaboración con el centro del que procede el/la alumno/a.
A los padres y madres se les pide el máximo compromiso a la hora de garantizar que sus hijos e hijas asistan, lleguen puntualmente, acudan con su agenda escolar y con el material escolar necesario para realizar la tarea.
Los grupos, castellano y euskera, se reúnen dos tardes por semana en sesiones de 50 minutos. Cuesta 20 euros por trimestre.
Para colaborar como voluntario/a en esta actividad de apoyo a alumnado hay que dirigirse al Servicio social de Base o al Gazteleku". ■



## AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

## Atarrabiak bere arbuio irmoa agertu zuen indarkeria matxistaren aurka




**Kanpaina bateratua**
Aurten kanpaina bateratua egin dute Atarrabiako Udalak, Nafarroako beste Udal askok, Nafarroako Gobernuak, eta Udalerri eta Kontzejuen Federazioak indarkeria matxistaren aurka. Nafarroako Parlamentuak ere bat egin zuen. Horrela, Nafarroako 80tik gora toki entitatek irudi eta goiburu berbera erabiltzeaz gain (Atarrabiak ezetz dio), manifestu bat onetsi zuten, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko lanean segitzeko. Aurtengo testuan emakume eta neska errefuxiatuek pairatzen duten indarkeria izan da ardatz, baina gainerako indarkeria guztiak ere aipatuta, sistemaren egiturazko indarkeriak baitira.

**Programazio zabala herrian**
Udalak hainbat jarduera antolatu zituen Gazteria alorrean, eta Kultura nahiz Berdintasun Zerbitzuetan. Pedro de Atarrabia BHIk ere hainbat ekimen abiarazi zituen, eta era berean, Atargiko Guraso Elkarteak, Mandrake emakume elkarteak, Etxebeltza elkarteak eta Iruñeko Andrea taldeak. Zalantzarik gabe, gero eta jende gehiago ari gara ateratzen emakumeen kontrako indarkeria salatzeko.

Lehen ekitaldia zine-forum bat izan zen, **azaroaren 16an**, zinemako emakume heroiei buruz, María Castejónek moderatuta, "Hysteria" filma ikusita.

**Azaroaren 18an**, hainbat tailer egin ziren egun osoan, Afrikako perkusioa, dantza eta sorkuntza lantzeko. **Azaroaren 13tik 27ra**, "Cuerpos diversos" izenburuko erakusketa jarri zen ikusgai Kultur Etxean, Emakume Gazteen Federazioak apailatua. **Azaroaren 20tik 24ra**, Idoskia guraso elkarteak hainbat ekitaldi antolatu zituen Atargi ikastetxe publikoan, eta **hilaren 21ean**, Mandrake elkarteak Helena Tabernaren "Nagore" film-dokumentala eman zuen, Kultur Etxean. **Hilaren 23an** (osteguna), "100 años de Gloria" izeneko olerki errezitaldia egin zen Kultur Etxeko antzokian, Gloria Fuertes poetaren inguruan. **Hilaren 24an eta 25ean**, hainbat ekitaldi egin ziren Gaztelekun jende gaztearentzat. Zehazki, 24an, generoak, rolak eta matxismo txikiak izan zituzten mintzagai antzerki erako dinamiken bidez, eta 25ean, berriz, hainbat bideo grabatu ziren bezperan landutako gaiak oinarri harturik.

**Azaroaren 25ean**, martxa bat egin zen Udaletxetik Alicia Arístregui Atarrabiako auzokidearen omenezko oroitarrirraino, bikotekideak 2002an erail, eta han, lore sorta bat utzi, manifestu bat irakurri eta 2017an erraildako emakume guztien izenak irakurri ziren, guztiak ere beren bikotekideek edo bidekotekide ohiek erailda.

## 25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

## Villava expresó su contundente rechazo a la violencia machista

**Campaña conjunta**
El Ayuntamiento de Villava participó en una campaña conjunta con otros Ayuntamientos navarros, Gobierno de Navarra y con la Federación Navarra de Municipios y Concejos y a la que sumó también el Parlamento de Navarra. Más de 80 entidades locales navarras compartieron imagen y lema (VILLAVA DICE NO) y aprobaron un manifiesto en sus plenos mostrando su compromiso para seguir trabajando para erradicar la violencia contra las mujeres. El texto de este año, se centró en la violencia que sufren mujeres y niñas refugiadas pero también, en el resto de violencias, definiéndolas como estructurales del sistema.





**Una programación local extensa**
Desde el Ayuntamiento se programaron actividades en el área de Juventud y en los servicios de Cultura e Igualdad. El IESO Pedro de Atarrabia también se sumó con varias iniciativas, al igual que la Apyma del centro Atargi, la Asociación de Mujeres Mandrake, la Sociedad Etxebeltza y el colectivo Andrea de Pamplona. No hay duda de que cada vez somos más quienes nos sumamos al rechazo de la violencia contra las mujeres.

Las actividades comenzaron el **16 de noviembre** con un cinefórum en torno a las heroínas de cine moderado por María Castejón a partir de la película "Hysteria". El **18 de noviembre** se celebraron a lo largo de todo el día varios talleres en torno a la percusión, la danza y la creación africanas. Del **13 al 27 de noviembre** la Casa de Cultura acogió una exposición titulada "Cuerpos diversos", de la Federación de Mujeres Jóvenes. **Entre el 20 y el 24 de noviembre**, la apyma Idoskia programó diversas actividades en el colegio público Atargi, y **el 21** la asociación Mandrake programó la película documental,"Nagore" de Helena Taberna, en la casa de Cultura. El jueves **23** el teatro de la Casa de Cultura acogió un recital poético, titulado "100 años de Gloria", en torno a la figura de la poetisa Gloria Fuertes. Los días **24 y 25** hubo actividades dirigidas a la juventud de la mano del Gazteleku. En concreto, el 24 se abordaron como temas el género, los roles y los micromachismos a través de dinámicas teatrales y el 25 se grabaron videos a partir del trabajo del día anterior.

El **25 de noviembre** una marcha recorrió el trayecto entre el Ayuntamiento y el monolito que recuerda a la vecina de Villava Alicia Arístregui, asesinada en 2002 por su pareja, donde se depositó un ramo de flores, se leyó un manifiesto y se nombró a todas las mujeres asesinadas en 2017a manos de sus parejas o exparejas. ■



## ■ Mindfulness ikastaro berria

Berdintasun Zerbitzuak beste Mindfulness ikastaro bat antolatu du emakumeentzat, lehen ikastaroak arrakasta izan zuela ikusita (urrian eta azaroan egindakoa), itxaron zerrenda handia eragin baitzuen. Erabateko Arreta lantzeko bigarren ikastaroa Kultur Etxean eginen da, astelehenetan, 16:00etatik 17:30era, urtarrilaren 15etik martxoaren 19ra. 10 euroko prezioa du. Abenduaren 21ean bukatuko da izena emateko epea (012).
Frogatu denez, mindfulness praktika oso ona da egoera negatiboak tratatzeko, hala nola estresa, antsietatea eta depresioa. Gure burua ahalduntzeko tresna da; gu gizaki kontzienteak eta askeak baikara geure bizitzaz aukeratu eta erabakitzeko, eta halakoak garen heinean, praktika hori lagungarria zaigu geure posizioa bereizi eta defenditzeko.




## Nuevo curso de Mindfulness

El Servicio de Igualdad ha organizado un nuevo curso de Mindfulness o Atención Plena dirigido a mujeres, a la vista de la buena aceptación cosechada por el primero (realizado entre octubre y noviembre) y la larga lista de espera que generó. El nuevo curso se desarrollará en la Casa de Cultura los lunes de 16:00 a 17:30 entre el 15 de enero y el 19 de marzo. Tiene un precio de 10 euros. El plazo de inscripción finaliza ell 21 de diciembre (012).
El Mindfulness ha demostrado ser de gran utilidad para el tratamiento de estados negativos, como el estrés, la ansiedad y la depresión. Es una herramienta de empoderamiento que ayuda a discernir y defender una posición como seres humanos conscientes y libres para elegir y decidir sobre la propia vida. ■



## Jubiloteka: ateak zabalik, ezagutu dezazun

Jubilotekak ateak zabaltzen ditu urtero egunotan, jendeak barrenetik ikusi eta ezagutu dezan. Aurten, **abenduaren 20an eta 21ean** izanen da. Zehazki, 17:00etatik 19:00etara, jendeak jakinen du zer egiten den eta nork osatzen duen Jubilotekako familia. Abenduan, halaber, belaunaldien arteko trukaketa eguna eginen da Amalur Eskolako haurrekin; opariak eta kantuak izanen dira. Hitz batez, arras une hunkigarria!

2017an, Jubilotekak jarduera berri batzuk egin ditu. Adibidez, herriko pilategia edo trapu-errota ikustera joan ziren, gida batek erakutsita, eta musikoterapian aritu dira; eta zerbitzua buru-belarri lotu zitzaion herriko Atarrabia Gosearen Aurka GKEaren kanpainari. Kanpainaren izenburua “Adreiluak” izan zen, hots, ekintza sinboliko bat pobreziaren horma eraitsi beharraz.

Aurrera begira ere, Jubilotekaren, eta herriko talde eta jendearen arteko elkarlana sustatu nahi da. Izan ere, erabiltzaileendako ekitaldi atsegingarriak egiteaz gain, helburua da zainketen gaia bizitzaren erdigunean jartzea, herriaren erdigunean.

Jubiloteka, orain, Seur Fundazioaren kanpaina batean ari da parte hartzen tapoiak biltzeko. “Tapoiak bizitza berri baterako” izena du, eta elkartasuna agertzeaz gain, ingurumenaren aldeko ekimena ere bada.

Jubiloteka familiei arnasgune bat emateko baliabidea da, zaintzaileek atseden har dezaten edota bestelako zereginak egin ditzaten, haien zaintzapeko pertsona adinekoak udal zerbitzu honetan zaintzen dituzten bitartean.

## La Jubiloteka abre sus puertas y te invita a conocerla

Los días **20 y 21 de diciembre** la Jubiloteca celebrará, como todos los años por estas fechas, sus jornadas de Puertas Abiertas. Entre las 17:00 y las 19:00, la ciudadanía está invitada a visitar el local en el que desarrollan su actividad, para que de primera mano conozca qué es, a qué se dedica y quiénes forman parte de la de la familia de la Jubiloteka. También en diciembre celebrará la jornada de Intercambio intergeneracional con las criaturas de la Escuela Amalur, con quienes intercambiarán regalos, cantarán... ¡un momento muy especial!




A lo largo de 2017 la Jubiloteka ha emprendido algunas actividades nuevas. Por ejemplo, se realizó una visita guiada al Batán que se acompañó con una charla; las personas usuarias del servicio han practicado yoga y musicoterapia; y se implicó activamente en la campaña de la ONG local Atarrabia Contra el Hambre denominada “Ladrillos”, una acción simbólica sobre la necesidad de derribar el muro de la pobreza. La idea es continuar fomentando esta colaboración con colectivos y personas del pueblo y acercar la Jubiloteka a la calle. Además de realizar actividades gratificantes para las personas usuarias, el objetivo es situar el tema de los cuidados en el centro de la vida, en el centro del pueblo.

En este momento, la Jubiloteca está participando en un proyecto con Fundación Seur de recogida de tapones, “Tapones para una nueva vida”, una campaña con fines solidarios y ambientales.

La Jubiloteka es un recurso de respiro familiar que facilita que las personas cuidadoras puedan descansar o ocuparse de otras tareas mientras las personas mayores a su cuidado son atendidas en este servicio municipal. ■



## ■ Aldaketak udalaren webean

Udal webgune berriaren informazioa egituratuagoa dago, eta orain, herritarrak klik gutxi batzuk eginez sartuko dira edukietan. Gainera, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, atal berri bat jarri da, “Klik batean” izenekoa, edukirik nabarmenena erakusteko, herritarrek gehien eskatutakoa izaten baita, hala nola web bidezko tramiteetan sartzea, udal aldizkaria, udal zerbitzuak, eskabideak, gardentasunaren ataria, etab. Diseinu minimalista dauka, behar bezalako komunikazioa ziurtatzeko, eta gailu mugikor orotara egokitzen da. Halaber, bat dator irisgarritasun arloko arauekin.



## El Ayuntamiento renueva su web

La nueva web municipal presenta una información más estructurada, que permite al ciudadano acceder al contenido en pocos clics. Además, con el objetivo de ofrecer un mejor servicio se ha incorporado un apartado nuevo, denominado “En un clic!”, que recoge el contenido más destacado y normalmente el más demandado por la ciudadanía, como el acceso a trámites web, el boletín municipal, servicios municipales, instancias, portal de transparencia… En cuanto al diseño, es minimalista para proporcionar una comunicación efectiva y se adapta a cualquier dispositivo móvil. Asimismo, es acorde a las normas de accesibilidad. ■














## Partaidetza handia Udalaren Kirol Eskoletan

## Alta participación en las Escuelas Deportivas Municipales

Izan ere, 6tik 15 urtera bitarteko erroldatuen % 65,29k eman dute izena Udalaren Kirol Eskoletan eta igeriketa ikastaroetan, denboraldi honetan; 740 haur dira, guztira. % 56,6 mutikoak dira eta % 43,4, neskatoak. Guztira, 56 kirol talde osatu dira euskaraz eta/edo gaztelaniaz, 14 diziplinatan. Programa herrian erroldaturik dagoen eskola-biztanleriarentzat da, eta hainbat balio sustatu nahi ditu: erabateko kirol hezkuntza garatzea; partaidetzan oinarritua, eta ez, lehian; herriko klubei laguntzea eta haien oinarria izatea; Nafarroako Kirol Jokoetan aritzea; eta inor ez baztertzea, sexu, arraza eta adin arrazoiengatik, ezta gaitasun ekonomiko edo sozialarengatik ere.
Irudia eskolak aurkezteko ekitaldian hartu zen, joan den urriaren 18an. ■

El 65,29% de las personas empadronadas de 6 a 15 años (740 niñas y niños) participan en las Escuelas Deportivas Municipales y cursillos de natación durante este curso. El 56,6% son chicos y el 43,4%, chicas.
En total, se han formado 56 grupos deportivos, en euskera y/o castellano, de 14 disciplinas diferentes.
El programa, dirigido a la población escolar empadronada, tiene como valores el desarrollo de una educación deportiva integral; una filosofía participativa y no competitiva; apoyar y ser base de los clubes locales; participar en los Juegos Deportivos de Navarra; y no discriminar por razón de sexo, raza, edad, capacidad económica o social. La imagen fue tomada en el acto de presentación de las escuelas, el pasado 18 de octubre. ■

## ■ 2018ko egutegia kirol-instalazioetarako

**Martiket K.H. eta Atarrabia pilotalekua**
Itxita egonen dira urtarrilaren 1ean eta 6an, eta abenduaren 25ean. Igerileku estalia uztail osoan egonen da itxita.
Neguan, instalazioak 8:00etatik 22:00etara egonen dira zabalik, astelehenetik larunbatera, eta 8:00etatik 14:00etara, igande eta jaiegunetan. Aipatu behar da hainbat egunek jaiegunetako ordutegia izanen dutela: azaroaren 30ak (San Andres); urriaren 6ak, 7ak, 8ak, 9ak, 12ak eta 13ak (Atarrabiako festak), eta abenduaren 24ak eta 31k, eta urtarrilaren 5ak.
Udan (ekainak 9- irailak 9), instalazioak egunero egonen dira zabalik, 8:00etatik 22:00etara, atari zabaleko igerilekuak izan ezik, 10:00etatik 21:00etara egonen baitira irekita. Martiketeko taberna eta askaldegia 10:00etatik 23:00etara egonen dira zabalik, astelehenetik ostegunera eta igandeetan, eta 10:00etatik 1:00etara ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan.
**Lorenzo Goicoa**
Instalazioak itxita egonen dira urtarrilaren 1ean, 5ean eta 6an; ekainaren 9an, 10ean, 16an, 17an, 23an, 24an eta 30ean; uztailaren 1etik 31ra; eta abenduaren 24an eta 25ean, eta 31n. Ordutegia, astelehenetik ostiralera, 16:15etik 22:30era; larunbatetan, 8:30etik 22:30era, eta igandeetan, 8:00etatik 15:00etara. Hona "Eskaeraren araberako" egunak: martxoak 29, 30, eta apirilak 2; urriak 8, 9 eta 12; azaroak 1; eta abenduak 3, 6 eta 8. Abuztuaren 15ean eta azaroaren 30ean laneguneko ordutegia mantenduko da.

## Calendario 2018 de las instalaciones deportivas

**C.D. Martiket y F. Atarrabia**
Cerrarán los días 1 y 6 de enero y 25 de diciembre. La piscina cubierta julio completo. En invierno, las instalaciones abrirán de 8:00 a 22:00 de lunes a sábado y de 8:00 a 14:00 los domingos y festivos. El 30 de noviembre (San Andrés), los días 6, 7, 8, 9, 12 y 13 de octubre (fiestas de Villava), y 24 y 31 de diciembre y 5 de enero (Navidad) tendrán horario de día festivo.
En verano (9 junio-9 septiembre) las instalaciones abrirán todos los días de 8:00 a 22:00, salvo las piscinas al aire libre, que lo harán de las 10:00 a 21:00. El bar y el merendero de Martiket abrirán de 10:00 a 23:00 de lunes a jueves y los domingos, y de 10:00 a 1:00 de la madrugada los viernes, sábados y vísperas de festivos.
**Lorenzo Goicoa**
Las instalaciones cerrarán 1, 5 y 6 de enero; 9, 10, 16, 17, 23, 24 y 30 de junio; del 1 a 31 de julio; y 24, 25 y 31 de diciembre. El horario será de lunes a viernes de 16:15 a 22:30; sábados de 8:30 a 22:30 y domingos de 8:00 a 15:00. Las fechas "Bajo petición" serán 29, 30 de marzo y 2 de abril; 1 de mayo; 25 a 29 de junio; fines de semana del 4, 5,11 y 12 de agosto; 8, 9 y 12 de octubre; 1 de noviembre; y 3, 6 y 8 de diciembre. El 15 de agosto y el 30 de noviembre tendrán horario de día laboral. ■

## ■ Kirol tarifak 2018

Atarrabiak kirol tarifak izoztu ditu 2018rako, hala Udalaren Kirol Eskolakoak nola Hirugarren Adinarendako Jarduera Fisikokoak, erroldatuta ez daudenendako izan ezik, % 10 igo baitzaie. Horrela, orekatu nahi da gastu federatiboak kirol batzuetarako igo izana, eta pixkanaka, jardueraren egiazko kostuaren % 100era hurbildu. Bestalde, Udalaren laguntzak mantendu dira (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren txostenaren ondotik) erroldatuen izenemate guztietarako. Laguntza beharrean daudenendako dira. Halaber, helduendako jardueren eta uretako jardueren prezioak mantendu dira heldu den urterako, Martiketen (Aldizkaria ixtean, Osoko bilkuran azken gai hori erabakitzeke zegoen).

## Tarifas deportivas 2018

Villava ha acordado una congelación de las tarifas para 2018 de Escuelas Deportivas Municipales y de la Actividad física para la Tercera Edad,
excepto para personas no empadronadas, para quienes aumentan un 10%. De esta forma, se busca compensar la subida de los gastos federativos en algunas disciplinas y acercarse progresivamente al 100% del coste real de la actividad. Por otra parte, se mantienen las ayudas del Ayuntamiento (previo informe del Servicio Social de Base) para todas las inscripciones de empadronadas y empadronados las ayudas son para los que lo necesiten.
También se mantienen para el año que viene los precios de las actividades de Martiket para personas adultas y actividades de agua.
(Este acuerdo estaba a falta de su ratificación en pleno al cierre de esta revista). ■

## ■ Martiketeko lanak aurrera

Obenasak gero eta aurreratuagoak ditu jarduera-gelak berritzeko lanak Martiketen. Bide bat moldatu da ibilgailu astunak sartu eta ateratzeko. Lanek iraun bitartean, jarduerak karpetan egiten ari dira, berogailua dute, eta Martiketeko patioko frontoi txikietan jarri dira.

## Avanzan las obras en Martiket

Las obras de reforma de las salas de actividades de Martiket que lleva a cabo Obenasa siguen avanzando. Se ha habilitado un camino para la entrada y salida de los vehículos pesados. Mientras se efectúan los trabajos, las actividades se están desarrollando en unas carpas calefactadas instaladas en los mini frontones del patio de Martiket. ■

## ■ Jarduera zuzendua Martiketeko muskulazio gelan

Behin neguko errutinak finkatu ditugunean, une egokia da muskulazio gelan hasteko. "Kirol" izeneko abonua duten bazkideek muskulazio gelako monitorea dute eskura, Iñaki Meka, edozein kontsulta egiteko edo taulak prestatzeko. Zerbitzua arras gomendagarria da eta ez du kostu gehigarririk. Honatx monitorearen ordutegia: astelehen eta asteazkenetan, 9:30etik 12:30era eta 16:00etatik 18:00etara; astearteetan, 17:00etatik 21:00etara, eta ostegunetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak, igerilekuko bulegoan (**948 334920**) eta **info@kirolmartiket.com**

## Actividad dirigida en la sala de musculación de Martiket

Una vez fijadas las rutinas invernales, es un buen momento para iniciarse en la sala de musculación. Los y las abonadas de las instalaciones con el abono "Kirol" activado tienen a su disposición al monitor de la sala de musculación, Iñaki Meka, para cualquier consulta o preparación de tablas. El servicio es altamente recomendable y no tiene coste añadido. El horario del monitor es lunes y miércoles de 9:30 a 12:30 y de 16:00 a 18:00; martes de 17:00 a 21:00, y jueves de 17:00 a 20:00. Más información, en la oficina de las piscinas (**948 334920**) y en **info@kirolmartiket.com** ■

## ■ Ariadna Malo, txapelduna 50 metro libreetan

Ariadna Malo igerilari atarrabiarrak 50 metro libreetan irabazi du Nafarroako Kirol Jokoetako lehen proban. Saioa Tuteran jokatu zen, urriaren 28an.



## Ariadna Malo, campeona en 50 metros libres

La nadadora local Ariadna Malo venció en la modalidad de 50 metros libres en la primera prueba de los Juegos Deportivos de Navarra, celebrada en Tudela el 28 de octubre. ■

## ■ Aillen Ripa, selekzioan



Aillen Ripa talde kadetean ari da eskubaloian, eta Promesen talde nazionalera eraman zuten Espainiako Nazioarteko Txapelketa jokatzeko, Camargon (Kantabria). Frantzia, Alemania eta Poloniako selekzioak ere aritu dira. Txapelketa azaroan jokatu da.

## Aillen Ripa, en la selección

La jugadora del equipo cadete femenino de balonmano Aillen Ripa fue seleccionada para formar parte del equipo nacional Promesas que disputó el Torneo Internacional de España en Camargo (Cantabria) junto a las selecciones de Francia, Alemania y Polonia el pasado noviembre. ■

## ■ Gero eta gogo handiagoa dute 60 urtetik gorakoek jarduera fisikoa egiteko

Izan ere, beste hamahiru lagun hasi dira denboraldi honetan 60 urtetik gorakoendako jarduera fisikoan; beraz, guztira 92 dira, lau taldetan banatuta. Udalak antolatua eta diruz lagundua, eta San Andres Erretiratuen Elkarteak lagundurik, ekimena Osasun Etxeak babesten du, bai eta Nafarroako Kirol Institutuko Kirol Medikuntzako Zentroko Osasun programak ere. Adinekoen ariketan berariazko prestaketa duen monitore bat da emailea, eta parte-hartzaile bakoitzari jarraipena egiten zaio haren osasuna baloratuta, sasoi fisikoaren balorazio-testa eginda, eta datu antropometrikoak aztertuta.



## Crece el interés por la Actividad física para mayores de 60 años

Trece personas nuevas se han incorporado este curso a la Actividad física para mayores de 60 años, y ya son 92 en total repartidas en cuatro grupos. El programa, organizado y subvencionado por el Ayuntamiento con la colaboración del Club de Jubilados San Andrés, está apoyado por el Centro de Salud y el programa de Salud del Centro de Medicina del Deporte del Instituto Navarro de Deporte. La actividad, impartida por una monitora con preparación específica en ejercicio en la edad adulta, incluye un seguimiento individualizado de cada participante mediante una valoración de salud, test de valoración de la condición física y datos antropométricos. ■



## ■ 42 haur Kirolanitzaren Eskolan

5etik 8 urtera bitarteko 42 haurrek eta haien familiek Kirolanitzaren Eskola aukeratu dute aurten, adin horretako kirol azturak finkatzeko eta kirola egiten segitzeko; bestela, goiz espezializatu behar izatearen ondorioz, haurrek kirola bazterrean uzten dute. Hainbat adinetako lau talde osatu dira, eta eskaerarekin bat, hiru talde euskaraz dira, eta bat, gaztelaniaz.
Eskolak era jostagarrian hurbildu nahi du kirola haurrengana, 8 urtetik aitzina haur bakoitzak modalitate bat aukera dezan kirol eskolen eskaintzan. Adituen esanetan, seitik zortzi urtera bitarteko haurrentzat oso ona da gutxienez denboraldi batez jarduera hau egitea.

## 42 niños y niñas en la Escuela de Multideporte

42 niñas y niños de 5 a 8 años y sus familias han optado este curso por la Escuela de Multideporte, pensada para afianzar los hábitos deportivos adecuados a esa edad y evitar el abandono de la práctica deportiva debido a la temprana especialización. Se han formado cuatro grupos de distintas edades y, atendiendo a la demanda, tres de los grupos son en euskera y uno en castellano.
La escuela busca un acercamiento lúdico a los distintos deportes para que, a partir de los ocho años, cada niño o niña elija una modalidad de la oferta de escuelas deportivas. Las y los expertos recomiendan que al menos durante un curso se realice esta actividad entre los seis y ocho años. ■

**Euskara > Euskera**

## ■ Euskara, opari




Berriz era plazan da euskarazko produktuen katalogoa, 200etik gora udalek eta 135 entitatek argitara emanda. Lehen aldiz, 1998an karrikaratu zen. Aurtengo argitalpenean liburu, aldizkari, komiki, musika, produktu digital, jostailu eta film sorta handia dago jasoa bai haurrentzat bai 16 urtera bitarteko gazteentzat, bai eta gurasoentzat ere. Produktu bakoitzari buruzko irudia dakar eta, horrez gain, argibidea egileaz, argitaletxeaz, gutxi gorabeherako prezioaz eta zer adin tarterendako den. Paperean eta www.katalogoa.org webean dago eskura, eta ikastetxeen bitartez banatu da Atarrabian.

## El euskera, un regalo

Más de 200 ayuntamientos y 135 entidades han publicado una nueva edición del catálogo de productos en euskera, que vio la luz por primera vez en 1998. La publicación de 2017 recoge una gran variedad libros, revistas, cómics, música, productos digitales, juguetes y películas para niños y niñas y jóvenes de hasta 16 años, así como materiales para padres y madres. En cada producto se aporta una imagen e información sobre la autora o autor, la editorial, el precio estimado y la franja de edad a la que va dirigido. El catálogo está disponible en papel y en la web www.katalogoa.org, y se ha distribuido en Villava a través de los centros escolares. ■

## ■ Euskararen bilakaera Atarrabian

Hemendik gutxira, Atarrabiako karriketan euskara zenbat erabiltzen den neurtuko da, bi helburu gogoan hartuta: batetik, euskararen erabileraren bilakaera jakiteko, eta bestetik, euskaraz jakitearen mailaren eta erabileraren arteko lotura ezagutzeko. Bi talde ibiliko dira kalez kale, inguruan entzuten denari adi eta isilik, hau da, inolako galderarik egin gabe. Orain arteko neurketetan, ikusi da euskararen erabilera % 4,4tik % 10,8ra handitu dela, 2001etik 2008ra. Haurrak mintzatzen dira gehien euskaraz (% 19,9, zehazki, 2008an), eta gazteak, gutxien (% 1, 2008an).

## Evolución del euskera en Villava

En breve se va a medir la utilización del euskera en las calles de Villava con un doble objetivo: conocer la evolución del uso de este idioma y conocer la realidad del uso, la relación entre el nivel de conocimiento del idioma y su utilización. El estudio lo llevarán a cabo dos grupos de personas que se desplazarán por las calles y escucharán sin realizar preguntas.
En las mediciones realizadas hasta la fecha se ha comprobado que la utilización del euskera ha aumentado de un 4,4% en 2001 a un 10'8% en 2008. El grupo que más lo habla es la población infantil (19,9% en 2008) y el que menos la juventud (1% en 2008). ■

## ■ Bertsoak eskolan bisitari

Ikasturte honetan ere Bertsolaritza Eskolan izeneko programa egiten ari da Atarrabian, Euskara Zerbitzuak abiarazita, Nafarroako Bertsozale Elkartearekin eta Iruñerriko beste udal batzuekin elkarlanean. Horrela, haurrak gure ahozko literaturan sartzen hasten dira, bertsolaritzaren neurri, doinu eta sekretuetan, eta modu ederra da euskara bera era jostagarrian lantzeko. Aurreko edizioetako inkesten arabera, programak harrera ona du.

## Los bertsos visitan la escuela

El Servicio de Euskera, en colaboración con la Asociación Navarra de Amigos del Bertsolarismo y otros ayuntamientos de la Comarca de Pamplona, ha puesto en marcha este curso una nueva edición del programa Bertsolarismo en la Escuela en Villava. A través es esta actividad, niños y niñas conocen esta modalidad de literatura oral, sus rimas y secretos, además de trabajar la lengua de una forma lúdica. Según reflejan las encuestas de ediciones anteriores, el programa tiene una buena aceptación. ■

**Kultura > Cultura**



## ■ Txuma Flamarique, rock amerikarraren funtsak Atarrabiatik

Otsailaren 4an, igandea, Txuma Flamarique gitarra-jole atarrabiarrak "Eboluzioa" CD berria aurkeztuko du. Hamaika gai dira, guztiak ere euskaraz abestuak, Madrilgo "Rock CD" zigiluak argitaratua, eta Elkar etxeak banatua. "Eboluzioa" lanean, Txumak bere bizitzan bidaide izan dituen pertsonengan pausatu du begirada. Abentura honetan, Iker Bengotxea (ahotsa), Jon Uribeetxeberria (bateria) eta Jabiertxo Pintor "Txo"( baxua) izan ditu bidelagun, taldean sartu den azkena, alegia. Denak kalitate nabarmeneko musikariak dira, Estatuko nahiz nazioarteko artista aunitzekin aritutakoak. Rock amerikarraren funtsa; inola ere galdu behar ez den emanaldia.
Kontzertua 20:00etan hasiko da. Sarrerak 7 € balio du leihatilan, eta 5 €, interneten aurrez erosita.

## Txuma Flamarique, esencias de rock americano desde Villava

El domingo 4 de febrero el guitarrista de Atarrabia Txuma Flamarique presentará en el teatro su nuevo CD "Eboluzioa", once temas cantados completamente en euskera editados por el sello madrileño "Rock CD" y distribuido por Elkar. En "Eboluzioa" Txuma hace un recorrido por las personas de su vida. Le acompañan en esta aventura Iker Bengotxea a la voz, Jon Uribeetxeberria a la batería, y Jabiertxo Pintor "Txo" al bajo, última incorporación a la banda. Músicos de calidad contrastada que han tocado con much@s artistas del panorama nacional e internacional. Rock americano en esencia, una actuación que no hay que perderse. El concierto es la las 20:00. El precio de la entrada es 7 € en taquilla y 5 € anticipada en internet. ■




## Liburutegiko nobedadeak / Novedades Biblioteca

**HELDUAK / ADULTOS:**
✖ **MUGURUZA, Noemi** *Libro de Nanas.* Valencia: Media Vaca , 2017. 116 p. ✖ **REDONDO, Dolores** *Hori guztia emango dizut.* Donostia: Erein: 2017. 697p.
✖ **ROIZ, Inma.** *Oro verde.* Donostia: TTartalo. 2017. 339 p.

**HAURRAK-GAZTEAK / INFANTIL-JUVENIL:**
✖ **BLYTON, Enid.** *La navidad de los cinco* Barcelona: Juventud. 2017. 78 p. A partir de 7 años.
✖ **ARNAL, Txabi.** *Donostia: Elkar, 2017. 25 p. 6 urtetik..* Donostia: Erein, 2017. 149 p. 12 urtetik.
✖ **FUERTES, Gloria.** *El camello cojito.* Madrid : Bruño, 2017. 27 p. A partir de 8 años



San Andres egunean, Petri Atarrabiako literatur sariketa eta Besta Jira argazki lehiaketako sariak batzar aretoan banatu ziren. / El día de San Andrés el salón de plenos acogió la entrega de premios de los certámenes Pedro de Atarrabia de literatura y Besta Jira de fotografía.

## Petri Atarrabiako eta Besta Jira Sariak

**Besta Jira**
Zuri-beltzean, 1. Saria, 200 €-z hornitua, "Apoyo" izeneko argazkiarentzat, Ángel Atanasio Rincónek egina (Ciudad Real). 2. Saria, 100 €-z hornitua, "Charco en el camino", Gironako Miquel Planells Saurina auzokidearentzat.
Koloretan, 1. Saria, 200 €-z hornitua, "Las recolectoras" argazkiarentzat, Luis Mª Barrio Saenz errioxarrak egina, eta 2. Saria, berriz, 100 €-z honritua, "Flysch 1" argazkiarentzat, Iruñeko Alfonso Segura López de Dicastillok egina.
Herriko gaian, 1. Saria, 200 €-z hornitua, "A vista de lagartija" izenburuko argazkiarentzat izan da, Alesbesko Javier Moreno Simónek egina, eta 2. Saria, 100 €-z hornitua, "SFJ colonia ciudad" argazkiarentzat, Javier Bengoetxea Espinosa atarrabiarrak egina.
XXII edizio honetan Pello Gurbindo (mahaiburua) kultura zinegotzia eta José Mª Ballesta nahiz Juantxo Oskoz argazkilariak izan dira epaimahaikide.
14 argazki aurkeztu dira zuri-beltzean; 17, koloretan, eta 5, herriko gaian.

**Petri Atarrabiako**
Andrés Morales Rotgerrek epaimahaikide guztien botoa eskuratu du "Miedo al agua" kontakizunarekin, Petri Atarrabiako XXIV. literatur sariketan, gaztelaniazko modalitatean. Euskarazkoan, irabazlea, eta epaimahaikide guztien botoa eskuratuta, Goiatz Labandibar Arbelaitz gipuzkoarra izan da "Florentina" lanarekin. Modalitate bakoitzean, lehiaketa 2.500 euroz hornitua dago.
Rosa Regàs, Fernando Marías, José María Romera eta Felipe Juaristi idazleak izan ziren epaimahaikide. 1.295 kontakizun aurkeztu dira gaztelaniaz, eta 18 kontakizun, euskaraz.





## Premios Pedro de Atarrabia y Besta Jira

**Best Jira**
En la modalidad de blanco y negro, el 1º Premio, dotado con 200 €, ha sido para la fotografía titulada "Apoyo", de Ángel Atanasio Rincón, de Ciudad Real. El 2º Premio, dotado con 100 €, para "Charco en el camino", del vecino de Girona Miquel Planells Saurina.
En la modalidad de color, el 1º Premio, dotado con 200 €, ha sido para la fotografía "Las recolectoras", del riojano Luis Mª Barrio Saenz y el 2º, dotado con 100 €, para "Flysch 1", de Alfonso Segura López de Dicastillo, de Pamplona.



En la modalidad de tema local, el 1º Premio, dotado con 200 €, ha sido para la fotografía titulada "A vista de lagartija", de Javier Moreno Simón, de Villafranca, y el 2º, dotado con 100 €, para "SFJ colonia ciudad", del villavés Javier Bengoetxea Espinosa.
El Jurado de esta XXII edición estuvo integrado por el concejal de Cultura Pello Gurbindo (presidente) y los fotógrafos José Mª Ballesta y Juantxo Oskoz.
Han concurrido a esta convocatoria 14 fotografías en la modalidad de blanco y negro, 17 en la de color y 5 en tema local.

**Pedro de Atarrabia**
Andrés Morales Rotger, con "Miedo al agua", ha obtenido con el voto unánime del jurado el XXIV Premio literario Pedro de Atarrabia en la modalidad de castellano. En la modalidad de euskera, el ganador, también con el voto unánime del jurado, ha sido el guipuzcoano Goiatz Labandibar Arbelaitz, con la obra titulada "Florentina". El certamen está dotado con 2.500 euros para cada una de las categorías.
El jurado estuvo formado por los escritores Rosa Regàs, Fernando Marías, José María Romera y Felipe Juaristi. Concurrieron 1.295 relatos en la modalidad de castellano y 18 relatos en la modalidad de euskera. ■

## Eguberrietako haur ikuskizunak



Kultur Etxean ikuskizun sorta ederra izanen da Eguberriotan, haurrentzat: hots, magia, antzerkia eta dantza. Izan ere, abenduaren 26an (asteartea), Marcos Ortega magoak "Rumbo a la Magia" ikuskizuna emanen du, Sandokini piratari buruzko istorioa, Magia izeneko uhartera nola iritsi den kontatzeko. Bestalde, Producciones Familiares Maestras taldeak "Martinaren parke fantastikoa" lana taularatuko du euskaraz abenduaren 28an, eta gaztelaniaz, biharamunean. Ana Maestrojuánek idatzi et zuzendua, lanak fantasia eta errealitatea uztartu ditu haur parke batean. Urtarrilaren 4an, Maria Nikolayeva errusiar ballet ospetsua itzuliko da Kultur Etxera "Abenturak Urte Berriaren bezperetan" izeneko koreografia emateko; ballet klasikoaren eta garaikidearen arteko nahasketa bat da.

## Espectáculos infantiles en Navidad



La Casa de Cultura ofrecerá estas Navidadses magia, teatro y danza dirigida al público infantil. El 26 de diciembre, martes, el mago Marcos Ortega presentará su espectáculo "Rumbo a la Magia", una historia sobre el pirata Sandokini y su llegada a la isla Magia. La compañía Producciones Familiares Maestras pondrá en escena el montaje "El fantástico Parque de Martina" el 28 de diciembre en euskera y al día siguiente en castellano. La obra, escrita y dirigida por Ana Maestrojuán, combina fantasía y realidad en un parque infantil. El 4 de enero, volverá a la Casa de Cultura el prestigioso ballet ruso de María Nikolayeva, que mostrará su coreografía "Aventuras en la víspera de Año Nuevo", una mezcla de ballet clásico y contemporáneo. ■

## Bestelako begirada bat Afrikari



Fernando Egiluz argazkilariak "África sin complejos. Descubre otra parte de la realidad" izenburuko erakusketa ekarriko digu, Afrikako gizartearen alde ezezagun, bizi eta sortzaile bat erakusteko; gizarte horretan, tradizioa eta modernotasuna elkarturik, jendeak topikoetatik ihesi aurre egiten dio etorkizunari.
Erakusketa urtarrilaren 24tik otsailaren 11ra arte egonen da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan, 18:00etatik 21:00etara.

## Una mirada distinta a África

El fotógrafo Fernando Egiluz nos acerca en la muestra "África sin complejos. Descubre otra parte de la realidad" una parte desconocida de la sociedad africana, vital y creativa, en la que confluyen tradición y modernidad y que afronta el futuro alejándose de los tópicos.
Esta exposición se podrá visitar del 24 de enero al 11 de febrero en la sala de exposiciones de la Casa de Cultura de 18:00 a 21:00. ■

### Elkarteendako laguntzak

Otsailaren 16an bukatuko da Kultura Zerbitzuaren laguntzak eskatzeko epea. Oinarriak, Kultur Etxean, HHBan eta udal webean (**www.villava.es**)

### Ayudas a asociaciones

El plazo para acceder a estas ayudas del Servicio de Cultura finaliza el 16 de febrero. Las bases, en la Casa de Cultura, en la OAC y en l(**www.villava.es**). ■

### Hitzarmenak arte entitateekin

Arte entitateek otsailaren 9ra arte izanen dute epea zabalik Udalarekiko urteko hitzarmenak eskatzeko. Oinarriak, Kultur Etxean, HABean eta **www.villava.es** webean.

### Convenios con entidades artísticas

Hasta el 9 de febrero, las entidades artísticas pueden solicitar acogerse a los convenios anuales con el Ayuntamiento. Las bases, en la Casa de Cultura, en la OAC y en **www.villava.es** ■

## Magia Gala, urtarrilaren 21ean

“Hipnosis total” izenburupean, Magia Gala bat eginen da urtarrilaren 21ean, herriko antzokian. Hiru lagun arituko dira: Elena, egungo hipnotizatzailerik onena; Taylor magoa, umorearen eta magiaren aitzindari bat ETBn; eta “Señor Pérez”, magia poetiko-bisualaren saio arrakastatsua ekarriko duena. Antolatzailea Iurgi magoa izan da, eta huraxe bera izanen da aurkezlea. 14 urtetik gorakoentzat izanen da, 20:00etan hasita. Sarrerak 5 € balio du.

## Gala de magia el 21 de enero

El teatro acogerá el domingo 21 de enero una Gala de Magia de título “Hipnosis total” en la que tomarán parte Elena, la mejor hipnotizadora del panorama actual; Mago Taylor, un pionero del humor y la magia en ETB; y “Señor Pérez”que traerá su éxitoso número de magia poético-visual. Organiza y presenta la gala el mago Iurgi. El espectáculo, para público a partir de 14 años. comenzará a las 20:00. La entrada cuesta 5 €. ■

## Justizia agertokian

Banarte Antzerki Taldeak “Dudas razonables” lana ekarriko du Atarrabiara, urtarrilaren 27an. Herri-epaimahaikide batek epaia hartu behar du, eta kideak eztabaidan ari dira auziperatutako pertsona erailketa delitu baten errudun den edo ez. Hasieran, ziur daude errudun dela, baina gero, “arrazoizko zalantzak” sortuko dira. Testu dibertigarri, garratz eta bizia.

Antzokian, 20:00etatik aurrera. Sarrerak 3 € balio du.

## La justicia se sube a un escenario

La compañía Banarte Antzerki Taldea trae a Villava el sábado 27 de enero la obra “Dudas razonables”. La obra nos sitúa ante las deliberaciones de un jurado popular encargado de dar un veredicto: culpable o no culpable de un delito de asesinato. Las certezas iniciales darán paso a las “dudas razonables”. Un texto divertido, agrio y dinámico.

Será en el teatro a las 20:00. la entrada cuesta 3 €. ■



**“Metáfora” poesia jaialdia.** Jaialdiaren bigarren edizioa Atarrabian egin zen, azaroaren 24an eta 25ean. Errezitaldiak, zehazki, Kultur Etxean egin ziren, eta hantxe aritu ziren egungo olerkari garrantzitsuenetako batzuk, hala nola Juan Carlos Mestre, errezitaldia eman baitzuen akordeoia eta guzti hilaren 24an, ostiralarekin (irudian). Biharamunean, nafar olerkarien txanda izan zen. Bukatzeko, Amancio Prada kantautoreak kantaldia eman zuen. **Festival de poesía “metáfora”.** Villava celebró los días 24 y 25 de noviembre la segunda edición del Festival de poesía “Metáfora”. La Casa de Cultura acogió a algunas de las voces más importantes del panorama actual, como la de Juan Carlos Mestre, que ofreció un recital con su acordeón el viernes 24 (en la imagen). El sábado el protagonismo fue para poetas y poetisas navarras. El cierre al programa lo puso un concierto del cantautor Amancio Prada. ■



## Ateraldiak elurretara

Uharte, Burlata, Aranguren Ibarra eta Atarrabiako Udalek elkarrekin antolatzen dituzten jardueren artean, bi ateraldi eginen dira eskiatzera joateko. Lehena **urtarrilaren 28an**, **Roncaliako estaziora, Belaguara**, iraupen eskian aritzeko. Prezioa 20 euro erroldatuentzat, hau da, autobusa, eskiak alokatzea eta forfaita barne. Ez erroldatuek 30 euro ordainduko dute. Izena urtarrilaren 2tik 14ra eman behar da, eta urtarrilaren 15etik 19ra, ordaindu.

Bigarren irteera **otsailaren 24an** eginen da, **Candanchura**, eskian edo snow egiteko. Erroldatuek 30 euro ordainduko dute (autobusa eta forfaita), eta 60, ez erroldatuek. Eta autobusa, eskiak/snowboard alokatzea eta forfaita 40 euro erroldatuentzat, eta 70 euro, ez erroldatuentzat. Izena urtarrilaren 29tik otsailaren 11ra eman behar da, eta otsailaren 12tik 16ra ordaindu.



## Salidas a la nieve

Dentro de las actividades mancomunadas que organizan los Ayuntamientos de Huarte, Burlada, Valle de Aranguren y Villava se han programado dos salidas para practicar esquí. La primera, el **28 de enero**, será a la estación de esquí de fondo **Roncalia (Belagua)**. El precio del autobús, el alquiler de esquís y el forfait es 20 euros para las personas empadronadas y 30 para las no empadronadas. Inscripciones, del 2 al 14 de enero, pagos, del 15 al 19 de enero.

La segunda salida, el **24 de febrero**, será a la estación de esquí de **Candanchú** y se podrá elegir entre la modalidad de esquís o snow. El precio del autobús y el forfait es 30 euros para las personas empadronadas y 60 para las no empadronadas; y el precio del autobús, alquiler de esquís/snowboard y forfait es 40 euros para las personas empadronadas y 70 para las no empadronadas. Inscripciones, del 29 de enero al 11 de febrero, pagos del 12 al 16 de febrero. ■

## Ekiozu urte berriari zumba erritmoan

Egin nahi al duzu kirolik urte berrian eta oraindik ere zumban aritu gabea al zara? Eman izena euskarazko zumba tailerrean, Gaztelekun egiten baita ostegunero. Urtarrilaren 30ean bukatuko da. Badira lekuak eta aukera ederra da zure kirola ote den ikusteko.

16 urte baino gehiago baduzu, eskolak astearte eta ostegunetan dira, 19:30etik 20:30era. 12 eta 15 urte artekoa bazara, ostegunetan dira, 18:00etik 19:00era. Zatoz edo deitu Gaztelekura (**948 35 59 70**).

## Empieza el año a ritmo de zumba

¿Quieres empezar el año con una actividad deportiva y todavía no has probado zumba? Apúntate al taller de zumba en euskera que se imparte los jueves en el Gazteleku. Finaliza el 30 de enero. Quedan plazas y es una oportunidad para descubrir si es tu deporte.

Si tienes más de 16 años, las clases son los martes y jueves de 19:30 a 20:30. Si tienes entre 12 y 15 años, son los jueves de 18:00 a 19:00. Acércate o llama al Gazteleku (**948 35 59 70**). ■

FRENAUTO
FRENOS DEL AUTOMOVIL
Ricardo Bel, s/n
Tel. 948 33 24 33
31610 VILLAVA

Anúnciate en
villavaatarrabia
948 13 67 66

CARNICERÍA - CHARCUTERÍA
OLORIZ & FELIX
NUEVA GERENCIA / GERENTZIA BERRIA
Mayor, 61 . Tel.: 948 332 657 . VILLAVA-ATARRABIA

## ■ Enplegu eta Prestakuntza programaren aurkezpena

Programa Gaztelekun aurkeztuko da **abenduaren 20an**, asteazkenarekin, bi saiotan: goizean, 11:00etan, eta arratsaldean, 18:00etan. 2018ko Enplegu eta Prestakuntza programa, hain zuzen ere. Oraindik 30 urte bete ez baduzu, langabezian bazaude eta prestakuntza jaso nahi baduzu lan bat aurkitzeko edo lan-merkatuan sartzeko, zatoz Gaztelekura eta informazioa emanen dizugu.

**Gizarte eta Lan orientabiderako Zerbitzua**
Enplegu eta Prestakuntza programaz gain, Gaztelekuk Gizarte eta Lan orientabiderako zerbitzua dauka aholkularitza emateko bai Gazte Berme Sistemari buruz, bai Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza ikastaroez, bai merkatuko lan nitxo berriez. Zatoz Gizarte eta Lan orientabiderako zerbitzura, Gaztelekura, astelehenetan, 17:00etatik 19:30era, eta asteazkenetan, 11:00etatik 14:00etara; edo eskatu hitzordua **948 35 59 70** telefonoan edo **juventud@villava.es**.

## Programa Empleo y Formación 2018

El Gazteleku acogerá el próximo miércoles **20 de diciembre** la presentación del Programa Empleo y Formación 2018 en dos sesiones: de mañana (11:00) y de tarde (18:00). Si tienes menos de 30 años, estás desempleada/o y quieres formarte para encontrar un empleo e insertarte en el mercado laboral, ven al Gazteleku e infórmate.

**Servicio de Orientación Sociolaboral**
Además del Programa Empleo y Formación, el centro juvenil cuenta con un Servicio de Orientación Sociolaboral que asesora sobre el Sistema de Garantía Juvenil, los cursos de formación del Servicio Navarro o los nuevos nichos de mercado. Pásate por el Servicio de Orientación Sociolaboral, en el Gazteleku, los lunes de 17:00 a 19:30 y los miércoles de 11:00 a 14:00; o pide cita en el teléfono **948 35 59 70** o en **juventud@villava.es**.

## 24 orduko futbitoa

Abenduaren 29an eta 30ean, 24 orduko futbito txapelketako partiduak jokatuko dira Lorenzo Goicoa pilotalekuan eta Induráin Anaiak kiroldegian. Izena abenduaren 22ra arte eman daiteke Gaztelekun. Talde bakoitzak 50 euro ordainduko du; talde mistoek, 40 euro. Talde txapeldunak egonaldi bat irabaziko du landetxe batean, bai eta garaikurra ere. Txapeldunordeak kirol anitzeko jarduera bat eta garaikurra, eta hirugarrenak, azkenik, afaria eta garaikurra. Argibideak Gaztelekun, **948 35 59 70** zenbakian, **juventud@villava.es** helbidean eta **www.villava.es**.

## 24 horas de Futbito

Los días 29 y 30 de diciembre se disputarán en el frontón Lorenzo Goicoa y en el Polideportivo Hermanos Induráin los partidos del V Torneo 24 horas de Futbito. Las inscripciones, hasta el 22 de diciembre en el Gazteleku. El precio de la inscripción es 50 euros por equipo, 40 euros para los equipos mixtos. El premio para el equipo campeón es una estancia en una casa rural y trofeo. Para el subcampeón, una actividad multiaventura y trofeo, y, para el tercero, cena y trofeo. Más información en el Gazteleku, en el teléfono **948 35 59 70** en la dirección de correo **juventud@villava.es** y en **www.villava.es**.

## ■ Mobile School

**Abenduak 19:** Udaletxe plaza (17:00-19:00)
**Abenduak 26 eta 28:** Udaletxe plaza (18:00-19:30)
**Urtarrilaren 9tik aurrera:** asteartea (17:00-18:30)



## ■ Mobile School

**19 de diciembre:** plaza Ayuntamiento (17:00-19:00)
**26 y 28 de diciembre:** plaza del Ayuntamiento (18:00-19:30).
**A partir del 9 enero:** martes (17:00-18:30)

## ■ Jarduerak: Gazte Bizi eta Gazte Bizi plus

